


Herri Aldizkaria **Otamotz**

1997ko abendua 30. alea



SANTA LUTZIAK 97

Harro gaude
zuri hain
automobil
aseguru osoa
eskaintzeaz



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK



50. hamarkadaren erdialdean Gabon eskean Zumarragan ateratako argazkia.

Zutik ezkerretik eskubira: Patxi Mendizabal, Atxa, Txomin Gartziandia, Erdozain, Luis Ormazabal, Ignacio Agirrebeña, Jesus Mari Fernandez de Lezea, Garcia de Andoin (Txelas).

Makurtuta: Joxeaustin Ibarzabal, J. R. Peciña, Javi Garcia de Andoin, Busca eta Esteban Uribesalgo

Argazkia Luis Ormazabalek utzitakoa da.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Labeaga

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

LIBURUDEIDA

GANBARA


Labeaga, 52

☎ eta faxa: 72 50 45

SANTA LUTZIAK 97

Sebastian Lizasok, Andoni Egañak eta Jon Maiak

Euskal Herriko Bertsolari txapelketa Nagusiko finalaren aurretik izandako azken saioa, Zumarragan izan zuten Santa Lutzi bezperan. Beraiekin batera, hiru bertsolariei finalerako zortarik onena opa zien **Angel Mari Peñagarikano** aritu zen Beloki pilotalekuan **Luzio Gabiriaren omenez** urtero egiten den bertso saioan. Bertsolariek lasai eta poliki erantzun zien **Asier Iriondo** gai jartzaileak bertso eskolako gainontzeko lagunekin batera asmatutako gaiei. Gai jartzailea bera ere, ederki aritu zen lanean, lasai.



Jarraitzaile gazte ugari dituzte bertsolariek. Argazkirako formal asko plantatu ziren guztiak.






SANTA LUTZIAK 97

Behor eta zaldiak izan ohi dira Santa Lutzi ferriako erakargarri nagusiak. Ganadu zale ugari etortzen da kantabria, Burgos eta Hueska aldetik animaliak aztertu eta eros- teko asmoarekin. Hala ere bertako baserritarrak, jende kopuruari dagokionez, nagusi izaten jarraitzen dute.



Aurtengo ferian antolatzaileek egindako lanari esker iazko animali kopuru bera mantent- zea lortu da. Tartean honelako animali puskak ikusteko auke- ra izan genuen, Zumarragako Legazpi auzunean . Bestalde Legazpi ikastetxeko patioan, nekazal tresnen erakusketa izan zen. Nekazal arloan, aurrerapen handiak ematen ari dira. Goikaldeko argazkian agertzen den traktorea izan zen honen testigu. Hainbat kuxkuxeroren begira- dak jaso zituen erakusgai egon zen tresneriak.



Mari Karmen Uranga: Hegaztien lehiaketarako Zumarragako plaza Areizaga-Kalebarren plaza baino toki hobea zen

Mari Karmen Urangak, hiru pare oilasko eta hiru pare kapoi ekarri zituen Santa Lutzitara.

Zer nolako janaria ematen zaie edo nola zaintzen dira animalia hauek ferietara ekartze-ko?

Hiru motatako euskal oilasko arrazako oilaskoak ekarri ditut: marradunak, zilarrak eta gorriak. Kapoietan, berriz, gorria eta marraduna. Kapoiek artoa, sagarrak eta kanpoko belarra jaten dute, feriara ekarri aurretik, azken hamabost egunetan esne hautsa ematen diegu, haragi hobea izateko. Oilaskoek artoa txikituta eta pentsu pixka bat jaten dute, gazteak direnean gehiago.

Noiz hasi zinen txapelketetan?

Badira hamar urte Santa Lutzi feriara etortzen naizela.

Nondik datorkizu afizioa?

Nahiz eta gurasoak baserrikoak izan, duela hamar urte hasi ginen hegaztiak ferietarako hazten.

Hamar urteotan asko aldatuko zen feria ezta?

Bai, asko aldatu da, izugarri. Gu lehenbizi etortzen ginenean, Zumarra-gako plazan egoten ziren hegaztiak.

Aldaketak, onerako edo txarrerako izan dira?

Jende gehiago etortzen da orain, baina guk lehen genuen tokia oraingoa baino hobea zen. Oraingo lekua ez da hain ederra. Baina feriaren onurarako omen da, eta ez dago besterik.

Saririk jaso al duzu hamar urte hauetan?

Bai, sariak ia urtero jaso ditugu. Iaz lehendabizikoak izan ginen kapoietan eta bigarrenak oilaskoe-

tan. Duela bi eta hiru urte sari berak jaso genituen.

Sarituak izateko, nolako oilaskoak eta kapoiak ekartzen dituzu?


Lehen hegaztirik handienak saritzen ziren, baina orain hori aldatu egin da. Orain hegazti handienak ez dira onenak, irizpidea aldatu egin da.

Nola bereizten dira kapoi onak eta txarrak?

Lumek disdiratsuak izan behar dute, gandorrek txikia eta kolore apalekoa, isatsa luzea pixka bat behe aldera doala.

Ezaugarri hauek guztiak betetzeko sekreturik ba al da?

Ez, guk kapoi asko egiten ditugu eta ez dira beti berdin ateratzen, kanpotik behintzat ez. Benetan saiatu egin behar da.





Aurtengo uzta nahiko txarra izan da, udaberri aldean, udazkeneko eguraldi onak hala ere gauzak konpondu ditu

Leku askotako partehartzaileak izan dira aurtan barazki, fruta eta errezil sagar lehiaketan. Guztira, 14 partaide izan dira. Gabiria, Ezkio-Itsaso, Segura, Berriz, Arrasate, Hernani eta Donostikoak. Jose Manuel Zabalegi Irizar donostiarra izan zen gurekin.

Zer jenero ekarri duzu barazki lehiaketara?

30 produktu inguru ekarri ditut, baratzan egiten direnak, 5.000 metro negutegi daditugu eta bertatik, baina, azenario, hiru piper klase... denetik ekarri dut.

Barazki hauek zainketa berezirik ba al dute?

Bai horixe! Bakoitzak bere estiloa, bere sistema behar du, bakoitzak ongarri desberdina behar du. Hemen dauzkagun tomateak, bainak eta gainontzekoak hidrokronikoan dauzkagu. Hau teknika berri bat da, urari

nahasketa batzuk egiten dizkiogu, landare bakoitzak behar dituen ongarri eta produktu desberdinak dosifikatuta bidaliz. Hala ari gara lanean, lur asko nekatuta daude negutegian eta hidrokronikoak arazo hori gainditu egiten du eta hor gabiltza lanean.

Aurtengo uzta zer moduzkoa izan da?

Urte guztiak desberdinak dira. Aurtengo udaberria nahiko txarra izan da, udazkenean berriz eguraldi ona egin du eta gauza asko moldatu ditugu. Hala ere urtea ez da hain txarra izan.

Santa Lutzitara etorri zaren bezala beste ferietara joateko ohiturarik ba al duzu?

Bai, Donosti; Tolosa eta Ordiziatik ere deitzen digute. Santa Lutzitara etortzen garen hirugarren edo laugarren urtea da. Gainera oso eguraldi ona dago, eta honek jende ugari ekarri du.

Sariren bat jasotzeko esperantzarik ba al duzu?

Beti eman digute zerbait eta aurtan ere izango al da. Ikusiko degu epaimahaikideek zer esaten duten, haiena bait da azken hitza.

Benigno Albeniz 42 urte eskulan- gintzan


Lore-sinboloak-, gurutzeak, eguzki loreak, ezkutuak eta batez ere euskal uztarriak lantzen ditu Benigno Albenizek. 1997ko abenduaren 12tik 21era Zumarragako Itarte Etxean izan dugu bere lana ikusteko aukera.

Makina hain gailenduta dagoen garai hauetan, Albenizek egurra lantzen du eskuz bere lan tresnez baliatuz. Modu tradizional honetan egiteak egun asko tako lana dakar. Piezak egiten, orduak eta orduak igarotzen ditu eskulangile honek. Euskal uztarriari kutsu berezia eman dio eta hain zuzen ere, uztarriak egiten ematen ditu ordu eta egun gehienak. Lehenik eta behin, bere tratamendua ematen dio egurrari, gero errezagoa bait da lantzea eta aldiberean, egurra indartu egiten da pipiek egin dezaketen kaltea gutxituz. Behin tratamendu hau eman ondoren, egurra lantzeari ekiten dio taila nahi bezala amaitzeko.

Benigno Albenizek, egur mota ezberdinak erabiltzen ditu. Paga da ordea gehien erabiltzen duena, hala ere, berak esandakoaren arabera, urkia da taila sakontzeko segurantz gehien ematen duena. Haria du eta lan gehiago ematen du baina segurantziarengatik eta egur fina delako aldi behin ere urkia aukatzen du.

42 urte daramatza eskulangintzan. Tartean ordea beste behar batzuk eraginda, utzi beharra izan du. Dena den, ezin izan du inoiz guztiz utzi inguruko jendeak gogor egin bait dio.

Bere ustez erakusketetan ez da gehiegi saltzen. Holakoetan gehienbat, ikusi egiten du eta lanen bat gustokoa izanez gero, Benignorekin harremanetan jartzen dira, bai telefonoz edo zuzenean etxera joz. Santa Lutzi egunean, jende asko hurbildu zen bere erakusketara kuriositatea asetu nahian eta honek jarraitzeko indarra ematen dio.



Benigno Albenizek paga erabiltzen du bere lanetan

Santa Lutzi feriko sari bana-

URRETXU-ZUMARRAGAKO OILASKO LEHIAKETA

Euskal arrazaren sailean

1. Maria Luisa Zurriarain
(albistuarra)

2. Mari karmen Uranga
(donostiarra)


Herriko sari berezia: Maria
Isabel Agirrebengo (zumarraga-
koa)

Arraza arruntaren sailean

1..Jose Urdanpileta (tolosa-
rra)

2. Jose Iturbe (arrasatearra)
Herriko sari berezia: Jose
Angel Lizarraga (urretxuarra)

URRETXU-ZUMARRAGAKO KAPOI LEHIAKETA



Euskal arrazaren sailean

1. Mari karmen Uranga
(donostiarra)

2. Xabier Goikoetxea
(albistuarra)

Arraza arruntaren sailean

1. Juan Aranburu (ezkio-
Itsasoarrak)

2. Sebastian Mujika (orio-
tarra)

Herriko sari berezia: Pello
Lizarazu (zumarragarra)

ZALDI ABERE LEHIAKE- TA

Pottoka lehiaketaren A atala

. Jose Luis Elordi (berangoa-
rra)zaldietan.

. Jose Luis Elordi (berangoa-
rra) behorretan.

Moxalik onenaren saria:
Zaldibiko Aralar Pottoka
Elkarteari.

Pottoka lehiaketaren B
atala

. Zaldien saria hutsik
utzi zuen epaimahaiak.

. Eugenio (Etxeberrikoa)
behorretan.

Moxalik onenaren saria:
Mikel Iraeta (zaldibiarrari)

Haragitarako zaldi abereak
Legasako Indar anaiak
zaldietan

Jose Ramon
Peñagarikano (gabiriarra)
Moxalik onenaren saria:
Pedro Mondragon (antzuola-
larra)

ZUMARRAGAKO BARAZ- KI LEHIAKETA



1. Jose Manuel Zabalegi
(donostiarra)

2. Maria Mercedes Urien (ber-
gararra)

3. Jose Iturbe (arrasatearra)

URRETXUKO BARAZKI LEHIAKETA

1. Tomas Larrañaga (antzuola-
rra)

ZUMARRAGAKO FRUTA LEHIAKETA

1. Maria Etxezarreta (gabiria-
rra)

Errezil sagarretan: Maria Isabel
Zumalakarregi (gabiriarra)


URRETXUKO FRUTA LEHIA- KETA

1. Kontxi Izagirre (antzuolarra)

URRETXUKO ARDO LEHIA- KETA

1. Azpillaga-Urarte upelate-
gia.(Lantziegokoa)

Nork ekartzen ditu opariak etxera olentzerok ala erregeek ?



Jon Jimenez

Biek ekartzen dizkirate opariak. Hala ere olentzerok hobeak ekartzen ditu.



Margarita Aramendi

Lehen erregeek ekartzen zuten. Orain berriz olentzerok ekartzen ditu opariak gure etxera.



Ana Gindulain

Azkenean biek, olentzero eta erregeek. Aurten agian ikatza ekarriko didate. Baina ez zait inporta azukredun ikatza asko gustatzen zait.



Mikel Balenziaga

Biek ekartzen dizkirate. Aurten erregeek hobeak ekarriko dizkidatela uste dut. Aurreko gauean ez naiz urduri egoten eta lasai egiten dut lo.



Nerea eta Aitor

Biek. Erregeek opari gehiago eta hobeak ekartzen dizkigute, hiru direlako eta olentzero berriz bakarra. Aurten ordenagailua eta urrutiko kontrolez ibiltzen den kotxea eskatu ditut. Nik berriz Pipo panpina eskatu dut.



BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETUXU

Jose Salegi, Belarreta: Biloba ni baino urrutirago iritsiko da idi probatan



71 urte ditu eta 40, idi probatan daramatza Joxe Salegi Belarretak. Lasturren jaio zen eta Mutriku eta San Migelen bizi ondoren, Zumarragara etorri zen. Abenduak 14an, Santa Lutzitako ekitaldien barnean, merezitako omenaldia jaso zuen. Herri Kirol ekitaldiak eta Urretxu eta Zumarragako Udalak antolatu zuten omenaldia. Azkoitiko Zurdo eta Elorrioko Arientza aritu ziren idi probatan, bertsotan Joxe Agirre eta Joxe Lizaso eta amaitzeko bazkaria ederra egin zuten. Nahiz eta idi probak hurbil-hurbiletik jarraitzen dituen, azken urteetan Egoitz Armaolea bilobarengan du jarrita esperantza.

Zer moduz ibili ziñen omenaldian?

Ondo, oso on do. Gustora geratu nintzen. Idi proba saioak ondo irten zuen. Aspaldiko lagunak ere etorri ziren eta herriko bi alkateen tartean bazkaldu nuen. Erregalu asko jaso nituen, oso ondo portatu dira nirekin.

Jo dezagun zure hasierako urteetara. Nola hasi zinen idi probatan?

Baserrian bizi nintzela hasi nintzen idi probatan. Hasi, gustatu eta aurrera jo nuen. Ama aldetik eduki nuen afizioa. Aita eta ama Lasturgoak ziren eta handik jaso nuen arrastoa.

Ordundik hona, gauza asko aldatuko ziren.

Bai asko. Gauza batzuk onera eta beste batzuk txar-



rrera. Sarien aldetik, txarrrera. Lehen denei ordaintzen zitzaien zerbait eta orain berriz onenei ematen zaie saria. Eta hori triste gelditzen da. Hala ere, oraindik behintzat, ixilik

egoteko moduan gaude.

Doping-a ere sartu da tartean. Zer nolako eragina izan du?

Bai. Jendea atzeraka botatzen du Doping-aren kontu honek. Lehenago kafea eta ardoa ematen zitzaizkien idiei eta orain berriz, ezin zaizkio horrelakorik eman. Nolabaiteko mugaren bat jarri beharra dago. Droga fuerteren bat eman ezkeror idiei ondo dago zigorra jartzea.

Gogoratzen al duzu lehen saria non jaso zenuen?

Hori ez da bela ahazten. Bizkaian, Arritxinan, Markina aldamenen izan zen. Alabak 8 urte zituen eta beste batekin batera autobusean bidali nuen kopa eta guzti. San Migelen familiartekoak zai zeuden kopa noiz iritsiko zain. Hura balio handiko kopa

izan zen. Ordundik hona sari asko irabazi ditut.

Zein da duzun oroitzapenik onena?

Abadiñon jokaturako proba izan zen. Hiru idi uztarrian lotuta beste bi idi pareren aurka aritu ginen. Natibitate egunean aritu ginen izugarritzko jendetza bildu zela. Barruan zegoen haina jende egon zen kanpoan sartu ezinik. Idi onak nituen eta egun hartan irabaztea tokatu zen.

Ze ezaugarri behar ditu idi probatan aritzeko idi pare batek?

Norberak hartzen dio bere pinta. Buruan, hanketan, buztanan... begiratuta idea bat hartzen zaio. Beti asmatzea ez da erraza baina tira. Lodi edo flakua egoteak ez du zerikusirik. Flakua egon da gainera errezago igartzen zaizkio lehen esandako ezaugarriak.



Adituek, beste probalariek alde batera utzitako idiekin txapeldun izan zarela diote. Egia al da?

Ja,ja,ja! Ez dago arrokeririk edukitzerik. Batzuk idia utzi egiten dute ez duela gehiagorako balio esanez. Gero ordea harekin zeozer egiten da. Sasoi batean ez nuen azierto txarra izan horrekin. Gaur egun ordea jendeak igarri egiten du eta zaila da. Lehen pare bat probatan idiak frakasatu ezkeror, bota egiten zien idiak, orain berriz hobeto aprobetxatzen da ganadua.

Nola entrenatzen dira idiak idi probetarako?

Lehen jendeak entrenatu ere ez zuen egiten. Orain berriz asko profesionalizatu da eta guztiek egiten ditugu entrenamenduak. Lehengo aldean ondo preparatuta dago jendea. Ahal badegu egunero entrenatzen degu guk ordu eta erdi inguru. Ibilaldi bat eman, garbitu, manteau...

Proba baina lehen zeozer berezia ematen al zaie idiei?

Ez. Lehenengotik pisan sartzeko, ez zaie janari eta edaririk ematen hiru lau egunetan. Pisatu ondoren, goseak egoten dira eta orduan ematen zaie jatekoa.



Non dago afiziorik gehien?

Bizkaia aldean. Abadiño, Markina baina orokorrean Bizkaia osoan. Idi pare onak joan ezkeror oraindik bete egiten dira plazak. Andrak ere duela gutxi hasi dira idi probatan. Eta nola egin gainera!

Urretxu-Zumarragan zer moduzko idi probak izaten dira?

Festatan antolatzen dira batipat. Amor propixo asko egoten da jokuan. Mantak erakutsi... eta afizio asko egoten da bata besteari irabazteko. Itxura denez,

aspalditik dator lehia hau. Baina idiak pisatu gabe eta 20 minututan nork gehiago egin jotzen da. Ez da erabat profesionala.

Idiek gehiegi sufritzen duteneko kontua entzun da azkenaldian

Orain, akuluak, lehengoak baina finagoak dira. Juezak ganean ditugu gai hau dela eta. Idiak amenazatzea ez da ona ez guretzat ez jendearentzat. Gehiegi kastigatzea ez da ona izan ere, idiak, astero ibiltzen dira plazaz-plaza eta tratu txarra hartzen dute. Ni, ez naiz asko zigortzearen aldekoa.

Bizi al daiteke idi probetarik?

Bai, bi edo hiru idi pare on edukirik eta zorte piskat izan ezkeror dirua manejatzen da, baina idi onak behar dira eta hauek erosi ahal izateko ere dirua behar da eta hor dira komeriak.

Iloba iritsiko al da zu izan zarena izatera?

Neretzako bai, nik erakutsitako ikasi du eta bere kontura ere beste piskat ikasi du eta gainera afizio handia du. Gaztea izanik edonora iritsi daiteke.

MASTER CADENA HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75



● Zorionak
Maddalen
eta ondo
pasa!



● Zorionak
Josu
eta urte
askotarako!!



● Zorionak
Ander, famili
eta lagun
partetik!!



● Zorionak
Alazne, eta iaz
bezala txintxo
portatu aurtan.



● Zorionak
Ioritz eta
eutsi irifarre
horri!



● Zorionak
Jose Ignacio
eta jarraitu
horrela.



● Zorionak
Edurne ikasto-
lako lagun
partez.



● Zorionak **Amaia**
zu bai zarela
alaia.



● Zorionak
Jon eta
urteberri
on.



● Zorionak
Jose Mari zure
urtebetetze egu-
nean.



● Zorionak
Julen eta ea
asko hazten
zaren.



Egañaren mailarik
nahiz ta guk izan ez
abendun urtemuga
zuk izan duzunez
potorik gabe baina
bertso txarren bidez
zoriondu nahi zaitugu
Urbegaintar **Anes**




Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

...baina harroago gurekin hain pozik dauden bezeroak izateaz

KALEBARREN 1 TEL. 72 50 22 ZUMARRAGA



Lagun Aroren 10
aseguratuetatik 9k
kalitate/prezio erlazierik
onena dutela uste dute.



Istripuren bat izan duten
Lagun Aroren bezeroen %94k
azkar eta eraginkortasunez
konpondu dutela adierazten
dute.



Konpainiaren kaudimen,
konfiantza, sendotasun,
azkartasun eta berrikuntza
mailari dagokionez, Lagun
Aroren bezeroek "oso ona" edo
"bikaina" erizten diote.